

EUSKAL HERRIAREN McDONALDIZAZIOA

Zalantzarik ez dago hurrengo mendean aldaketa ugari ezagutuko ditugula Euskal Herrian. Ez da gehiegi esatea euskaldunok gure ohitura, bizimodu edota pentsatzeko moduen erroko berregituraketa ezagutuko dugula. Teknologia berriek, biztanlegoan emango diren aldaketek edota maila politiko eta kulturalean zein baloreen baitan emango diren berantolaketek eragin nabarmena izango dute euskaldunon eguneroko bizitzetan. Interesgarria da, beraz, gizartean hain eragin handia duten faktore hauei buruz zenbait gogoeta egitea.

I.- TEKNOLOGIA BERRIEN ERAGINA EUSKAL GIZARTEAN

Etengabeko iraultza teknologikoan bizi gara. Injenieritza genetikoan, telekomunikazioetan edota era ezberdinetako makina eta tresnen inguruan egunero ematen ari diren aurkikuntza eta aurrerapenak, gure erosteko ohiturak, lan egiteko eta aisialdia antolatzeke moduak eta, orokorrean, gizakion bizi baldintzak aldatuko dituzte.

1.1.- Euskaldunon bizi baldintzen hobekuntza

Teknologia berrien agerpenak aldaketa izugarriak eragingo ditu giza genomarekin zerikusia duten gaietan. Izan ere, injenieritza genetikoak aurrerapausu garrantzitsuak ematen ari da. Umekiaren malformazioei buruzko ikerketekin batera, abereen zein landareengandik datozen elikagaien kopurua eta kalitatea hobea egotzeko bideak garatu edota heredentziazko gaizotasunak sendatzeko aukerak zabaldu dituela oso kontutan hartu behar da. Injenieritza genetikoa ondorio ezkor ugariaren eta etikoki zalantzarik izan daitezkeen portaera eta saiakuntzen sorrera izan badaiteke ere, behar bezala erabiltzen bada gizakion sufrimenduak (batez ere osasuna eta gosearekin zerikusia dutenak) arintzeko aukera ederra izango da.

Bestalde, medikuntzaren mundua errotik eraldatuko duten eta gure bizi esperantza eta kalitatea handitu eta hobea egotuko duten gailu eta aurkikuntzak agertuko dira. Zentzu honetan, sintomak agertu aurretik gaizotasunak tratatzeko aukera emanago duten tresnak gero eta aruntagoak izango dira euskal botika eta heritexetan (Genechip izenarekin, Californiako Affymetrix enpresa horrelako zerbait ikertzen ari da).

Honela bada, teknologia berriek gure bizi-kalitatea hobea egotu eta bizi-itxaropena handituko dutela pentsatu behar dugu.

1.2.- Lana, aisialdia eta kontsumo portaeren berrantolaketa

Teknologien inguruko iraultzak eragin izugarria izango du ere lan arlo, aisialdi eta kontsumo portaeretan. Zentzu honetan, lan gero eta espezializatuagoak eta teknifikatuagoak egingo ditugu, bigarren mailako ogibideak Hirugarren Mundutik goseari iheska etorriko zaizkigun eta guk baino merkeago lan egingo dutenen eskuetan utziko ditugarrik.

Era berean, telelanak edota ordenagailu bitartez etxean lan egiteko aukerek ere garrantzi gehiago hartuko dute. 35 orduko lan-astea ezartzen doan heinean (epe ertainean errealitate bat izango da hori!), lanak gero eta garrantzi gutxiago eta, ondorioz, aisialdiak gero eta gehiago izango dutela iruditzen zait. Honek guztiak lan eta kontsumo ohituren eta gure denbora antolatzeke moduen aldaketa ekarriko du.

Astialdirako denbora gehiago izango dugunez, gure atsedena asetzen saiatuko diren enpresa, zerbitzu eta produktu ugari eta sofistikatuak agertuko dira. Aisialdia kontsumogai bihurtuko da. Honekin batera, lanetik kanporako orduak toki artifizialetan pasatzeko joera areagotu egingo da. Kirola gimnasioetan egingo dugu, filmeak azalera handiko saltokietan ikusiko ditugu eta musika kontzertuak internet bitartez entzun eta ikusiko ditugu. Hori bai! Visa zenbakia behar bezala adierazi ondoren.

Kontsumoa eta aisialdia gero eta lotuago egongo direla pentsa daiteke, bestalde. Gero eta arruntagoa izango da larunbat osoa azalera handiko saltokietan pasatzea: Goizean erosketak egin, salguneko anburgesia edo pizzerian bazkaldu eta arratsaldean, filme bat ikusi ondoren, etxeratuko diren gero eta sendi eta pertsona gehiago egongo da Euskal Herrian. Estatu Batuetan eta, orokorrean, Mendebaldeko gizarte aurreratu ia guztietan eman den Mcdonaldizazioa nahitaezkoa dela gure artean esango nuke.

Era berean, internet eta katalogo bitartez erosteko gero eta joera handiagoa agertuko da. Ekoizle, banatzaile, dendari eta era ezberdinetako erakunde komertzialek, bestalde, gero eta gehiago teknifikatu eta hobeagotuko dituzte kontsumora bultzatzeko metodoak eta, ondorioz, kontsumoa gure bizitzako ekintzarik garrantzitsuenetarikoa bihurtuko da.

Kontsumismorako joera bultzatuko duen gizarte bat datorkigu; gauza guztiak ikuspuntu ekonomikotik baloratzeko, giza-

kia kontsumitutako produktuen kopuru eta kalitatearen araberara neurtzeko joera duen mundu bat. Eta honen ondorio zuzena da, gizarte eta gizakien helburu garrantzitsuena gauzak erosi eta edukitzea izango dela.

1.3.- Kanpoko kulturen eragina Euskal Herrian

Euskal kulturak eta euskarak XX. mendearen azken hamarkadan eman dituen aurrerapausoak kontuan hartuz, etorkizunean ere indartuz joango dela pentsa dezakegu. Dituen hutsuneak handiak eta jarraitu behar duen bideari buruzko zalantza ugari badago ere (euskal kultur egitasmo bat falta dago oraindik ere), ez dirudi epe labur eta ertainean euskera eta euskal kultura desagertuko direnik.

Beste gauza bat da epe luzean gertatuko dena. Izan ere, zalantzarik ez dago iraultza teknologikoaren ondorioz kanpoko kulturek gero eta indar handiagoa izango dutela gure artean. Telebista edota era ezberdinetako komunikabide atzeritarren eragina handiagotzen joango da eta horrek, baliteke hain ahul dagoen euskal kulturarengan ondorio ezkorrak izatea.

II.- EUSKAL HERRIAREN ZAHARTZEA ETA INMIGRAZIOA

Teknologiarekin batera, biztanlerian gertatuko diren aldaketek ere eragin handia izango dute Euskal Herrian. Alde batetik, jaiotze tasa oso txikien ondorioz belaunaldien ordezkatzeari ere ez da gaur egun ziurtatzen Euskal Herrian. Bizi-itxaropena handiagotuz eta jaiotze tasa txikiagotzen doazen heinean, bestalde, euskal gizartea gero eta zaharragoa izango da. Eta horrek, herrien ekintza gaitasuna eta bizitasuna galdu, sarrera ekonomikoak murriztu eta kontserbadurismorako joerak nabarmenduko direla esan nahi du. Joera hau askoz ere indartsuago agertuko da, gainera, udalerrri txikietan. Hau da, euske-

ra indartsuen dagoen tokietan. Eta horrek eragin ezkorra izango du, inolako zalantzarik gabe, euskal kulturarengan.

Ezin dugu ahanzi, ala ere, urtez urte 95 milioi biztanletan hazten ari den mundu honetan, migrazioek garrantzi izugarria izango dutela. Herrialde txiroetatik aberatsetara emango diren migrazioak izango direnez, Euskal Herrian ere izango dute eragina. Honela bada, hurrengo urteetan gure herrien osaketa errotik aldatuko duten inmigrazio uholde garrantzitsuak ezagutuko ditugula pentsatu behar dugu. Gaur egun beste arraza eta jatorri batzuetako pertsona gehienak hiri handietan aurkitzen baditugu ere, apurka apurka herri txikietan ere ikusiko ditugu. Eta horrek, bizimodu, erlijio, ohitura eta, orokorrean, kultura ezberdinekin bizitzen ikasi beharko dugula esan nahi du. Era berean, arrazakeria eta migrazioek sor ditzaketen arazo sozialak gero eta arruntagoak izango direla ere pentsatu behar da.

2.1.- Euskal Herria Europan

Teknologian eta biztanlerian emango diren aldaketekin batera, baliteke maila politikoan ere aldaketa garrantzitsuak ezagutzea. Euskal Herriak Frantzia eta Espainiarekin duen auzi historikoaren ondorioz, epe labur eta ertainean *euskal gatazka* deiturikoak bere horretan jarraituko duela pentsatu daiteke. Udalbiltza bezalako erakunde batek etorkizunean garrantzia hartu eta gatazka hau arintzeko lan garrantzitsua egin badezake ere, ez dirudi epe laburrean eraginkortasun edota eskumen handirik izango duenik. Izan ere, autogobernua esan nahi duen edozeren garapena aurrerantzean ere oztopotua izango dela ondorioztatu behar da. Azken urteetako historia eta gaur egun Espainia eta Frantziako gobernuek Euskal Herriarekiko duten jarrera ikustea besterik ez dago.

Euskal Herriaren eskumen mailaren handiagotzea Europatik etorriko denik ere ezin da pentsatu. Oraingoz behintzat, esta-

turik gabeko herrialdeen auzia bigarren mailako gaia baita Europarentzat (Erregioen Batzordeak izaera kontsultibo hutsa izatea edoeta erregio eta estaturik gabeko herrialde gehienek axola zaizkien gaietan ordezkagaritza edoeta konpetentzia propiorik ez izatea horren adierazle dira).

Honen guztiaren ondorioz, ez da azterketa sakonegirik egin behar gatazka honi buruzko ardura gure elkarrizketa eta buruhaustetariko bat izaten jarraituko duela etorkizunean ere. Ahantzi gabe, dena dela, erabakiak era autonomoan hartzeko gero eta aukera gehiago agertzen ari zaizkiela estaturik gabeko herrialdeei edota gero eta legebiltzar edota administrazio autonomo gehiago sortzen ari direla European barrena. Eta horrek European eraikuntzan estatuak ez diren egiturek gero eta partehartze handiagoa izango dutela esan nahi du. Zentzu honetan, euskaldunok maila politikoan aldaketa garrantzitsuak eza-gutu ditzakegula iruditzen zait.

IV.- BALOREEN ALDAKETA EUSKAL HERRIAN

· Kanpo eragileek (teknologia, biztanleria eta politika) duten eraginari buruz zerbait esan ondoren, interesgarria da barne eragileen edo baloreen baitan emango diren aldaketei buruz zerbait esatea.

1996. urtean egin zen ikerketa baten arabera, Euskal Herriko Hegoaldean bizi garenontzat familia eta lagunak ziren, lanarekin batera, gure balore hierarkiaren gauzarik garrantzitsuenak; hauen ondoren, aisialdia eta erlijioa zeuden. Politika seigarren tokian agertzen zen.

Datuok orain dela lau urtekoak badira ere, epe labur eta ertainean hierarkia horrek bere horretan jarraituko duela pentsa daiteke. Gure ohitura, bizimodu eta mundu ikuskera aldatzen ari badira ere, aurkeztutako sei arlo hauek garrantzitsuak iza-

ten jarraituko dute. Lana, aisialdia eta politika aurretik aztertu ditugunez, familia eta erlijioari buruz hitz egingo dut ondoren.

4.1.- Gaur egungo familia ereduaren aldaketa

Betiko familiaren ereduak aldaketa nabarmenak ezagutuko ditu etorkizunean. Izan ere, sendiak gero eta txikiagoak dira, bakarrik bizitzeko gero eta joera handiagoa dago (Europan, adibidez, hiru etxetatik batean pertsona bakarra bizi da), bizialargunez osatutako edota sexu bereko bikote gehiago dago gure herrietan edota atzerriko umeak adoptatzen dituztenen kopurua gero eta handiagoa da (1999. urtean 200 sendi saiatu ziren Bizkaian atzerriko ume bat adoptatzen). Esan beharrik ere ez dago joera berri hauek kontsumoan (pertsona bakarrarentzako produktuak edo sukalderik gabeko etxeak), zerbitzuetan (haurtzaindegi gutxiago eta zaharretxe gehiago) edota gure burubideetan (sozializazio prozesu eta pertsona mota ezberdinen onarpena) aldaketa izugarriak sortaraziko dituztela.

4.2.- Erlijioaren berrindartzea

Gaur egun erlijioak bostgarren posizioa hartzen du euskaldunon balore hierarkian. XX. mendearen bigarren erdialdean balore erlijiosoek garrantzia galdu badute ere, XXI. Mendean izpiritualitateari loturiko gaiak garrantzi gehiago izango dutela pentsa daiteke. Aipatzekoa da, zentzu honetan, euren burua erlijiozaletzat dutenen portzentaia handiagotuz doala Euskal Herrian (1990. urtean %62 eta 1995.ean %67). Ohiturazko erlijioen bitartez zein sekta, sineskeria edota esoterismoaren bidez beraien izpiritualitate beharrianak asetzerantz bideratuko diren gero eta jende gehiago agertuko da. Denda esoterikoek, yoga ikastaroak, astrologoak, kartak irakurtzen dituzten sorginak...zenbat ugaritu diren Euskal Herriko hirietan ikustea besterik ez dago.

V.- GOGOETARAKO ZENBAIT ONDORIO

Teknologia berrien ondorioz, osasun hobetzea, bizitza luzeagoa eta aisialdiaz disfrutatzeke denbora gehiago izango badugu ere, gero eta bizitza atomizatuagoa izango dugu. Alde batetik, masifikazio egoera batetan biziko gara (jende pila bizi den etxeak, jende askorentzako garraioak, komunikabideak, zerbitzuak...) baina, bestalde, giza harremanak gero eta zailagoak izango dira. Are gehiago, euskal biztanlegoak bere ingurune hurbilean izteko gero eta joera argiagoak agertuko dituela iruditzen zait. Nire etxea, nire familia, nire ondasunak, nire lagunengatik ingurune txiki eta zerratua eta ni izango dira gure bizitzako gauzarik garrantzitsuenak. Kontraesan bat badirudi ere, masa gizartean biziko gara baina indibidualismo eta norberekeria gero eta indartsuago agertuko dira. Hobeto eta gehiago biziko bagara ere, bakardade handiagoa ezagutuko dugu.

Testuinguru honetan, gauzek izugarriko garrantzia hartuko dute; izan ere, besteekin eduki ezin daitezeken harremanen ordezko bihurtuko dira. Lagunen beharra gauzen eta komunikabideen bitartez –bereziki, ordenagailuaren bidez– ordezkatuko dugu nahiz eta, paradoxikoki, giza harremanen galera bultzatzen duten elementuak diren.

Etorkizun nahiko tristea irudikatzen ari nahizenik ezin ukatu. Dena dela, ez da ahaztu behar, euskal gizarteak Estatu espainolak edota Europako beste herrialde batzuk baino postmaterialismorako joera handiagoak erakusten dituela. Naturaren babesa, emakumeen eskubideak, Hirugarren Munduarekiko elkartasuna eta antzerako baloreak beste gizarte batzuetan baino indartsuago agertzen dira Euskal Herrian eta honek etorkizuna itxaropenez begiratzeko aukera ematen dit.

Maila politiko kulturalari dagokionez, euskal izaera mantentzea ez da erraza izango. Datozten urteetan inguruko kulturen eragina izugarria izango delakoan nago. Dena dela, estaturik gabeko herrialdeek etorkizunean eskumen gehiago izango du-

tela kontuan hartuz, euskal kultura bizitzeko gai izango dela eta, gainera, bere berezitasunak galdu gabe inguruko kulturen gauza onak bereganatzeko eta probetxatzeko gai izango dela pentsatzen dut. Denborak esango du!

Patxi Juaristi